

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urtarrilaren 23a

**Egunkaria**


**Gehigarri honetan**



**Zubieta-Ituren** • Nekazal inauterien lekuko.

**Jesus Gonzalez** • Beteluko proiektuak hizpide.

## Aezkoako Bailara



## despopulazioaren atakan

Aezkoako Bailara osatzen duten bederatzi herriak hustutzen ari dira. Hein batean bada ere, arazoari aurre egiteko, jaiotzak sustatzeko dirulaguntzak ematea erabaki du hango batzarrak.





Ituren-Zubieta •

# Hemen dira inauteriak

Ituren, Zubieta, Sunbilla eta Leitzan atso-agure festa dute egunotan

Hilabete bat pasatxo iraungo dute inauteriek han-hemen, inauteriak ospatzen dituzten herri guztietan ez baitituzte egun beretan egiten. Goiztiarrenak asteburu honetan hasiko dira, eta otsaila bukaera bitarte herriz herri ibiliko dira.



Zubieta eta Iturengo inauterietan ezinbestekoa da zanpantzarren joa.

• OSKAR MONTERO

**S**ONA HANDIENA DUTENEN ARTEAN, ez bairik gabe, Ituren eta Zubietakoak izaten dira. Larunbatean hasiko dira Ituren eta Zubietako inauteriak. Larunbatean eta igandean zanpantzarrek kalerik kale ibiliko diren arren, astelehenean zubietarrak Iturenera joango dira, eta asteartean iturendarrak eta Aurtizkoak (Iturengo auzoa) Zubietara. Bi herri horietan ateratzen diren zanpantzarrek aretze edo txekor bat hiltzeko ohitura izaten dute, egun horietan jateko. Zanpantzarrekin batera otorduek leku nabaria izaten dute bi herrietako inauterietan. Bestarik handiena egunegiz egiten bada ere, arratsez egiten dena ez da guttiago izaten.

Zanpantzarren artean mutil kozkorrak, emakumeak zein gizaknak atera ohi dira. Hilabete osoa daramate prestakizun lanetan, bereziki lehenengoz ateratzen

direnak. Lehendabiziko pausoa Errege Egun bezperan egiten dute. Aurtizko haurrak etxez etxe ateratzen dira zanpantzarren soinua karriketara zabaltzeko eta bidenabar nola jo ikasteko.

**Sunbillan eta Leitzan asteburuan**

Azken urteotan izugarritzko indarra hartu dute Sunbillako inauteriek. Ituren eta Zubietakoak bezala asteburu honetan egingen

dira, eta egitarau zabala prestatu dute horretarako sunbildarrek. Ortziralean, goizeko 9:00etan gosaltzera biltzen dira Iturburu ostatura, eta, ondotik, baserriz baserri puska biltzeari ekiten diote. Arratsaldean haurrak izaten dira nagusi. Ortziralean arratsaldean mozorratu ohi dira, eta berendua izaten dute. Ilunabarrean dantzaldia izanen da Herriko Etxeko arkupeetan. Dantzaldia bukatutakoan, emakumeek afaria egiten

dute, eta ondotik dantzaldia izaten da Ulibeltzak elkartean.

Larunbat goizean berriz ere gosaltzera elkartzen dira mozo-roak, eta karriketara aritzen dira eskean. Puskak bildu ondotik bazkaltzera elkartzen dira. Arratsaldeko 19:00etan maskara dantza egiten da arkupeetan. Afalondoan, dantzaldia herriko ostatuan egingen da.

Igandea da, noalanahi ere, egunik handiena Sunbillako

inauterietan. Egunero bezala goizeko bederatzietan gosaltzera elkartzen dira mozo-roak. 11:30etan kazorren desfilea egiten da txarangaren laguntzaz. Karroza ikusgarriak bildu ohi dira desfilea. Bazkaldu ondotik aspertu arte aritzen dira dantzan elkartean, inauterietan akabera ederra emateko.

Ituren, Zubieta eta Sunbillan ez ezik, Leitzan ere bihar hasiko dira inauteriak eta asteartera arte iraunen dute. Dena prest dute lau egunotan ongi pasatzeko: soinua, atso-agureak eta jale-tarako gogo ezin hobea.

Inauteri egun handia igandean ospatu arren, bihar hasiko dute festa 15:30etan. Soinuaren arri-moan herriko gazteak eskean ibiliko dira herrian barna etxez etxe. Ondoren, 21:30etan, Irauli Gazte Asanbladak antolatuta atsoagure afaria izanen da. Biharamunean bezperakoarekin aski izan ez duenak, atso-agure otordua egiteko aukera du 14:30etan. Bazkaria on egiteko bertso saio aparta izanen da IKA euskaltegiak antolatuta zineman 19:00etan. Bertso kantari ariko dira Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Unai Iturriaga eta Jesus Mari Irazu bertsolariak. Astelehena izaten da egunik politena, eta, zalantzarik gabe, neketsuena. Leitzarrek baserriz baserri eskean ibiliko dira puska jasotzen. Eta dantzarako gogoia dutenek aukera ere izanen dute, egunero Incansables txarangako lagunak kalez kale ibiliko dira-eta. Plazan, berriz, Etxakit taldeak eta Nerea eta Melani trikitilariak berotuko dute giroa.

→ Jon Abril-Idoia Mtez-Barranco

bidean begi

MAITE URKIA



**A** Axularrek idatzi zuen «Jaungoikoak gizakia lurreko parabisuan eta leku plazerrez betean ipini zuela anitz dohainez dotaturik», eta ez ditugu guk ezbaian jarriko dohain, edertasun eta plazer ugariak, zail izanen baikenuke bizitzea horiek izan ezean, nahiz eta badakigun anitz direla begien aitzinean basamortua eta malkar latzak baizik ikusten ez dituztenak.

«Jaungoikoak manatu omen zion gizakiari begira zezala ongi parabisua hura», eta egiaz begiratu duen arren parabisuko bere xoko ttipia etsairen bat hurbiltzen saiatu denean, ezin ahortzi mendetako iragan luzeak ongi

erakusten duela erasotu gizagaixo eta erasotzaile gupidagabe izan dela garaiak agintzen zuenaren arabera. Halarik ere, etsai arrotzen aitzinean tinko jarriagatik, ez dirudi berarengandik etorritako oldarraz behar adinbat jabetu denik, ez eta oharitu den ere zenbat uhalde eta larre utzi duen lardaskaturik bere gibelean.

Egun, gure idurikoz «historiaren hasieran» geratu diren pertsonak telebistan ikusten ditugunean eta mendebaldeko gizaki «aurreratuekin» alderatzen, harridura sor dakiguke, ezin ongi ulertua hainbesteko alde mundu bereko izakien artean. Eta galde

genezake aurreratze hori etengabea izanen den edo amaiera ezarria ote duen liburu ezkuturen batean, baina hori airean utzi beharko dugu oraingoz. Ordea, ekar ditzagun gogora gure ingurunearen ikur bilakatuak diren paper eta plastiko uholdeak eta pentsa nork beren habian ez al ditzakeen horiek urri, orotara horien beharra tipi dadin, sortu ohi diren zabor metak bezala. Desira dezagun naturaren kemena ez dezala ahitzeko bidean jar gizakiak, eta desira dezagun, halaber, guraso zaharregandik bostehun zuhaitz jaso dituen laborariak beste horrenbeste edo gehiago utz diezaiela bere ondorengoei ere.

## Parabisua



Lizarra

Lizarrako Udalak  
1998ko  
aurrekontuak  
onartu ditu


LIZARRAKO UDALAK JOAN ZEN astean, ilbeltzaren 15ean, egindako bilkura berezian onartu zituen 1998ko aurrekontuak. Proiektua 1.006 milioi pezetakoa da. Aldeko bederati boto jaso zituen (PSOEko sei, CUE-LKBko bi eta EAKo bat), eta kontrako zazpi (UPNko sei eta HBko bat).

Osoko bilkuran eztabaida luzea egon zen, aitzinkontuaren alde eta kontra agertu ziren taldeen artean (batez ere alkate sozialistaren eta UPNko zinegotzien artean), eta bertan hainbat gogoramen aurkeztu zituzten oposizioko taldeek. Talde erregionalistaren erranetan, «aurrekontuen atal batzuei erreparatu gero, badirudi alkateak estrategia aldatu egin duela; izan ere, joan zen urtean inbertsioen atalean diru kontu haundiak ezarri ziren, eta aurten nabarmen murriztu da atal hori». Hari beretik tiraka, UPNko ordezkariak azpimarratu zuen inbertsioetarako atal gehienak (40tik 37) hutsaren hurrengo direla, aurrekontuetan ez dutelako osik gorde horietarako. UPNk susmo txarra hartu zion horri. Jose Luis Castejon alkateak, berriz, inbertsioen alorrean ahal dutena egin dutela esan zuen, eta aurrekontuak jarraipenekoak direla aipatu zuen.

HBren iritziz, Udalak aurrekontuak onartzerakoan erakusten duen borondate politikoa gero ez da benetako ekintzetan nabaritzen. HBko zinegotzi Elena Urabaienek azaldu zuenez, «Lizarrako Udalak ezin du etxebizitzaren arazoari bizkarra ematen jarraitu. Joan den urtean ez zen ezer egin, eta aurten ere arazoak dauden daudenean geldituko diren beldur naiz».

→ Kristina Berasain

• Aldatz •



• MAILLOPE

Herriko ostatu zaharra zabalduko dute

Aldazko herrian Martintxonea sagardotegia zabaltzek bizitasuna eman zion oso lasaia den Aldatz herriari. Berez biztanle gutxi dituen arren, sagardo garaian jendez bete ohi da herria, eta aurrerantzean, bisitari horiek beste eskaintza bat izango dute, herriko ostatu zaharra martxan jartzekoa baita. Asmo hori dute ostatu erosi berri duten lau gazteek. Erosketa zaila gertatu omen zaie, herriko zenbait lagunengatik izenean baitzegoen ostatu zaharra. Orain, taberna eta otorduez gain (barazkijaleentzako ere izango da), beste zerbitzu batzuk eskaintzeko asmoa ere badute: musika emanaldiak, hitzaldiak... Aldazko giro lasaia duen erakargarritasunak bultzatuta, jende ugari hurbilduko da, seguruenik, aurrerantzean, Larraungo herri txiki honetara.

Urdiain

Galartza zabortegiko  
kontratuaren inguruan  
desadostasunak

MAGOTEAUX-NAVARRA ENPRESAK GALARTZAN erabiltzen duen zabortegiko kontratuaren berriztapenak desadostasun nabariak eragin ditu Urdiaingo Udalan. HBk azaroaren 22an hartutako akordioarekin bat ez datorrela agertu du, eta lehendabizi onartutako akordioa indarrean jartzeko eskatzen du. Hau da, azken kontratuak agertzen duen urteko milioi bateko kuota gehi KPI (Kontsumo Prezioen Indizea) izan

beharrean, KPI gehi bi milioiokoa izan dadin, eta 15 urteko erabilpen epea eman beharrean 10 urtekoa izateko eskatu du.

Baina, Alkatetzak, EAren esku, abuztu-ko udal batzarrean hartutako lehenengo akordio hura gainontzeko zabortegietako datu objektiborik izan gabe hartu zela azaldu du, eta ontzat eman du Magotteaux enpresaren proposamena aintzat hartzen duen azken akordioa. EAren arabera, Magoteaux-Navarrak zegokion epean -Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren hamabost eguneko epea egoten da alegazioak egiteko- egin zituen alegazioak, eta horietan pisuzko arrazoiak eman zituen hasiera baten, «datu objektiborik izan gabe», hitzartutako akordioa berriro aztertzeko.

→ Amaia Amilibia



herri aldizkariak

Edume Elizondo

Bera-Behobia errepidetik

Ttapi-ttapa hamabostekariko azken zenbakiak, Bera eta Behobia arteko errepidearen auzia jasotzen du erreportaia nagusiari eskaintako tardean: «Belateko tunelak idekita oraindik larriagoa bihurtu da Beratik Behobiaraino doaien errepidearen egoera. Behin-goan moldatze obrak abiatu daitezten. Bortzirietako alkateak aspalditik hasi ziren Gipuzkoa eta Nafarroako diputazioei presioa egiten eta joan den urteko abenduan, azkenik, lortu zuten bi aldeetako ordezkariak mahai berean esertzea. Beratik Endarlatsarainoko bide zatiaren konponketa proiektua egiteko konpromezua Nafarroako Gober-

nuak hartu du bere gain, eta, Palacios kontseilariak adierazi duenez, hemendik bi urtera obrak hasteko moduan izanen dira. Bi urtez luzatuko dira lan horiek, eta, beraz, 2002. urterako moldatua ikusiko omen du gu errepidea».

Endarlatsatik Behobiarainoko zatian sortzen da, ordea, arazoa. «Bi herrialdeetako agintariek onartu dute behar-beharrezkoa dela lehenbailehen Gipuzkoako sarrera horti moldatzea, baina, jakina denez, errepide zati horren jabetza Nafarroarena da XIX. mendeko geroztik, diru kopuru handia ordaindu baitzuen harengatik, eta horrek bi adminis-

trazioen arteko nahastea sortu du orain. Gipuzkoako Foru Aldundia moldaketa lanak finantzatzeko prest agertu da errepidearen titularitatea berreskuratzearen truke, baina Nafarroako Gobernuak ez du hori onartzen».

«Apiril aldera, hortaz, bilkura berri bat burutuko dute zonaldeko alkate eta administrazioetako buruek, orduan bai, proiektu berriaren gainean nolabaiteko akordio erabakigarria izenpetzeko. Ordurako, gainera, ingurugiro alternatibei buruzko ikerketa bateratua egiteko konpromezua hartu dute bi herrialdeetako teknikoei, eta dagoeneko horretan ari dira lanean».

Donesaturdiko  
oilarra  
lumatzen  
Juan Kruz Lakasta

Joseba

Josebak 20 urte ditu, Iturraman bizi da, eta NUPen Soziologiako bigarren mailan matrikulatuta dago. Ez da, ordea, Soziologiako bigarren maila ikasten ari. Ikasteaz nazkatuta dago. Ikasteari uztea eta lanean hastea erabaki du, baina ez da gurasoei esatera ausartzen. Horretarako beharrezkoa zaion kemena topatzearen zain, Los Portales tabernan igarotzen ditu egunak, auzoko lagunekin.

Garagardoa gora, garagardoa behera, porrua goiti, porrua beheiti, futbolinean, billarrean eta bideo-jolaetan ematen dituzte orduak. Joan den egunean, alta, poltsikoak ohi baino hustuago zeuzkaten, eta sosik gabe, ezin izan zuten ez garagardorik edan, ez eta jolasean aritu ere. Horrenbestez, mahai baten inguruan eseri ziren, eta egin zezaketen gauza bakarra egin zuten: porroak erre.

Porruak birikiak berotu zizkieten lehendabizi, eta buruak gero. Keak haizea lainotu zuen lehendabizi, eta buruak gero. Berotasun lainotsu atsegin horrek burua, batek supitoki bota zuen fantasia sexual batek obsesionatuta zuela, aldi berean bi neskekin oheratzeak hain zuzen ere. Guztiek barre eta algaretan eztanda egin zuten.

Giroa kiskaltzeraino berotu zen. Gazteen aurpegiak gorritu ziren, bai eta haien begiak ere, eta izerdi tantonak azaldu ziren batzuen kopetetan. Forro polarrak erantzten ari zirelarik, beste batek esan zuen hari neska beltz batekin oheratzea gustatuko litzaiokeela. Barre eta algaren ostean, hirugarren batek azaldu zuen hark eskarmentua duen emakume batekin oheratzearekin amets egiten duela.

Banaka-banaka, guztiek haien fantasien berri eman zuten, Joseba izan ezik. Josebak, lagunengatik harridurarako, unibertsitatera jaitsi behar zuela esanda aldegin zuen. Fantasia batekin zeharo obsesionatuta zegoen, eta ez zuen lagunei kontatu nahi. Gogorra zen, benetan gogorra, gogorregia, benetan lotsatzeko modukoa. Haren fantasia neska bat musukatzea zen. Josebak 20 urte ditu, eta ez du sekula neska lagunik eduki.



# Aezkoak despopulazioarekin borroan

Jaiotzak sustatzeko, jaio berri bakoitzeko  
250.000 pezetako dirulaguntza eskaini du batzarrak

**Aezkoako biztanleria zahartzen eta gutxitzen ari da. Jaiotzak urri dira, eta bailara osatzen duten bederatzi herriak husten ari dira. Hori gerta ez dadin, Bailarako Batzarrak, beste laguntza batzuekin batera, jaio berri bakoitzeko 250.000 pezetako dirulaguntza emanen du aurrerantzean.**

bat. Garraldarra da eta hiru urteko semea du. Beste bi bazkiderekin batera, bailaran dagoen harategi bakarrean egiten du lan. Barberenak dioenez, despopulazioari aurre egiteko zerbaitekin egin beharra zegoen. «Ekimena berria da. Ideia hobirik ez eta aurreko batzarrean onartutako laguntzak hobetuz haurrak ekartzeko dirulaguntzak ematea otu zitzaigun. Hemen ez dago inbertsiorik. Esaterako, badira hamar urte ez dugula dirurik jaso Hirurteko Planean», dio Barberenaren iritziz, egoera «oso larria» den arren, Gobernuak deus gutxi egin du eskualdea laguntzeko. Jakin badaki ez dela konponbidea, baina lagungarria izan daitekeela uste du. «Guk abiatu duguna laguntza txiki bat besterik ez da. Hau guztia, Nafarroako Gobernuaren laguntzekin osatu beharko litzateke, eskuetatik joaten ari zaien Pirinio aldea salbatzeko beharrezkoa delako». Dirulaguntzak onartzean batzarkide batzuek neurria gehiegizkoa zela esan bazuten ere, Barberena ez da baikor. Bere ustez, aurreikusitako dirua ere ez da gastatuko. «Joan den urtean lau ome jaio ziren bailaran, eta, hasieran batzuek nora iritsi nahi genuen galdetu zituzten arren, ez dugu pentsatu adina gastatuko. Lanpostu berri bakoitzeko edota industriaren bat irekitzeko ematen ditugun 600.000 pezetak ere hor geldituko dira ziurrenik».

Jendez hustea nabarmena izateaz gain, bailarako bederatzi herrietako biztanleria gero eta zaharra da. Bertan bizi direnen erdiak baino gehiago nekazari erretirodunak dira. Beraz, bailaran diru gehiena horietatik dator. Bailaran dagoen industria bakarra Oihana kooperatiba da, duela 18 urte aulkiak egiteko sortua.

Barberenak azpimarratu duenez, Garraldan 60 etxe daude eta, horietatik, hamar-hamabostetan bakarrik daude gazteak; gainerakoetan zaharrak bakarrik bizi dira. «Horiek hiltzean, akabo etxe horietako ondorena», dio etsita. Eta Aezkoako beste zortzi herrietan gertatzen ari denaren erakusgarri besterik ez da Garralda. Lur sailak eta gazteak dituen etxea aterako da aurrera, besteak ez.

Juntakideen iritziz, lantegi sendoren bat behar da eskualdean. Saiatu, behin baino gehiagotan saiatu dira industria erakartzen, baina ahalegina alferrik izan da.

90eko hamarkadaren hasieran Europako Batasunetik etortutako dirulaguntzak ere deus gutxirako balio izan du. Garalurrek, nekazari eskualdeak garatzeko elkarteak kudeaturik, industriari eta turismoari ematen zaizkio laguntzak, bertan garrantzitsua den abeltzaintza baztertuz. Hasieran eskualdea errentagarri



Garraldako eskola publikoko haur hezkuntzako haurrak klasean. ● LUIS AZANZA

## Bailaran hitz gutxi

Aezkoarrek ez dira gehiegi mintzatu galaz, eta ez dute askorik hitz egin nahi izan ere. Placido Erdozain da Garralda, Arike eta Orozeko apaiza. Hamasei urterekin alde egin zuen Euskal Herritik eta berrogeita hamarrek inzul. Hiru urte daramatza bizitzen Garraldan. Apaizen ustez, neurriak ez du zer esan handirik sortu Aezkoan. «Jendeak oso gutxi hitz egiten du horretaz, eta ez dirudi eragin handirik izan duenik». Erdozainek dioenez, Aezkoako egoera nahiko larria da. «Ez dago lanpostu berrik sortzeko aukerarik. Irtenbide bat aurkitu behar da, gainerakoan bailara hutsik geldituko

da. Etxe ederrak eta handiak ditu baina askotan pertsona bakarra eta zaharra bizi da. Hemen hilario asko eta jaiotza gutxi daude». Erdozainek adierazi duenez, biztanleria gero eta zaharra da oso nabaria da, eta asko sumatu da azken urteotan. «Aurten oso jende gutxi hil bada ere, etorri nintzen urtean Garraldan bakarrik hamalau hileta egin nituen». Bailarako zaharrek harreman estua du Plazidok, eta «etsituak» omen daude. «Bailaran sartzen den diru kopuru handiena pentsiodunetatik dator eta hori oso esanguratsua da. Udan turismoarekin jende

gehiago bagaude ere, neguan oso gutxi gelditzen gara».

Garraldako Añiak jatetxeko jabea da Noelia Barber, eta hiru urteko alaba du. Bera ere ez da baikor, eta ordenantza berriak ez omen du beste haurrik izatera bultzatuko.

«Laguntza ongi dago baina ez dut uste horregatik jaiotzak ugalduko direnik. Hori ez da gehiago jaiotzeko aitzakia. Arazoa ez da ekonomikoa, batziki eta bikotekoa. Ez dago bikoterik. Biztanleriaren piramide erabat alderantzikatua dago eta zahar asko daude», azpimarratu du.

bihurtuko zuten proiektu komunak sortuko zirela uste zen, baina ez da horrelakorik gauzatu. «Diru gutxi dute eta Gobernuak ez ditu nekazaritza guneak laguntzen. Biztanle gutxi garenaz, gu ez gara politikoki errentagarriak eta hori da gako. Hemen boto anitz lortuko balute, beste gauza bat litzateke».



Jose Miguel Barberena

«Gu ez gara politikoki errentagarriak. Hemen boto asko lortuko balute, bestela litzateke»

→ Irene Arrizurieta



Garraldako herrian inor gutxi aurki daiteke kalean. ● LUIS AZANZA

### Eragin txikia

Aezkoako Bailarako Batzarrak hartutako erabakia berria den arren, aezkoarrek ez dute deus handirik esaten dirulaguntzagatik. Gainera, gehienek laguntza ongi dagola badiote ere, ez dute uste horrek haur gehiago ekartzera bultzatuko dituenik. Bailarako herrietatik handiena ez den arren, erdian egotean, Garraldako eskola publikoan biltzen dira Aezkoako haur gehienak. Eskolan Haur Hezkuntzako eta Derrigorrezko Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako D eta A ereduak ikasleek ikasten dute, guztira 126. Merkiritz, Bizkarreta-Gerendiain eta Aurizberrikoekin batera. Garraldakoarekin batera Hiriberrikoa da, D ereduak zortzi haurrekin, zabalik gelditzen den bakarra. Orbaizetako eta Abaurregainekoak itxi egin zituzten, haur eskasagatik. Mikel Otegi iruindarra da duela hiru urtez gerotik Garraldako eskola publikoko zuzendaria. Haren iritziz, batzarrak hartutako erabakia ona da.

NABARMENA DA OSO NAFARROAKO PIRINIOETAKO herrietan gertatzen ari den despopulazioa. Arazoari aurre egin nahirik edo, Aezkoako Bailarako batzarrak jaiotzak bultzatzeko dirulaguntza eskaintzen die bikotei. Ordenantzetan erreparatu gero, aurrerantzean bailaran bizi den bikoteren batek haurrik ekarriko balu, 250.000 pezetako dirulaguntza jasoko luke, umea jaiotako urtean eta hurrengo laurutan. Beraz, guztira 1.250.000 pezeta (50.000 libera inguru) hartuko luke bikote bakoitzak. Neurri hori, bailaran ez ezik, herrialdean ere berria da. Nafarroan azken urteotan jaiotze tasak behera egin du nabarmen, eta 1995ean egindako azken azterketaren arabera jaiotze tasa 1,2koa zen herrialdean.



Mikel Otegi

«Oso ongi iruditzen zait. Jendeak horregatik ez du haur gehiago izanen, baina badu horretarako eragingarri bat»

### Hustearen beldur

Datuok aintzat hartuz, ez da harritzeko aezkoarrek kezkatzea eta Bailaren etorkizuna ziurtatu nahi izatea. Miguel Jose Barberena da Aezkoako Bailarako batzarreko hogeita hiru partaideetako



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador


### Baina bihotzak dio, zoaz Euskalerrira!

Urrutiko intxaurrak hamalau, bertaratu eta... Horixe zukeen buruan Iruñeko gotzaia zen Severo Leonardo Andriani Escofetek, 1852.ean Astigarragara eginiko artzai bisitaldian



Munduan barrena horrenbeste jendakirik barreiatu duen gurea bezalako herri batek emigrantea izendatzeko hitzik ez izatea zinez estonatzekoa zait, areago, aunitzetan bafada ziztrinekoa den etorkin hitza eduki daukagunean. Ez dakit, egungoan, bere derrigorrezko erbestearen helmuga Euskal Herria izan dutenok zer nolako iduria igortzen ote dieten etxean geratutakoei, baina ia ziur naiz, onegia ez dela. Antzekoa izan da, bederen, guri ateratzea egokitu zitzaigunean, partitzeko gai zitekeenari jakinarazi zitzaion mezua: «Baina bihotzak dio, zoaz Euskal Herri-ral!».

Urrutiko intxaurrak hamalau, bertaratu eta... Horixe zukeen buruan Iruñeko gotzaia zen Severo Leonardo Andriani Escofetek, 1852.ean Astigarragara eginiko artzai bisitaldian, eliztar harrituen aurrean ameriketaratu hainbat gazteren mixeriak, zinak eta minak, haunditze ikaragarriko lupa batetik iragazi ostean, deskribatu zituen. Ez zeritzon komenigarriegi bere apezpikutezko gazteak Ameriketara joateari, eta txiroen aberaste ametsak giza baliabideen galtze doilartzat zituela, gaitz horri hala edo nola ekiditeko nahian honako artzai gutuna karrikaratu zuen Iruñean: *Circular en la que se reprueba como inmoral el sistema de enganchar a jóvenes de ambos sexos para conducirlos al continente americano bajo las seductoras sospechas de una estable fortuna y de un feliz porvenir*. Urte batzuk beranduxeago, 1881.ean hain zuzen ere, José Oliver Hurtadok, hau ere Iruñeko gotzaia, helburu berbera zuen beste artzai gutun bat karrikaratu zuen: «Daukagu esperantza, arzipreste jaunak, erretore jaunak, eta ekonomo edo aben urrenak, egingo dutela bere gain dagon dena,



eragozitzeko jendlen joera mingarriko au, utzirik gure erriya langillerik gabe atxurkintza eta beste bizibideetako, eta jarririk denak irrisku aundiyari galtzeko duten fedia, erlijiyotasuna eta oitura zar onak, ala gizasemeak nola emakumeak, eta jakifia da erlijio santuba ondo gordetzen dan lur maitagarri ontan, izango dirala gain gañeko kristabak, naiz izan maizter eskasitubak eta langille bakunak».

Pentsatzekoa dugu Iruñeko gotzaiak bere gutuna ez zuela euskaraz eman, alabaina antzeko helburuak zituen Colá gasteiztarrek bere liburu batean jaso zuenez, Soroak eginiko itzulpen honetaz goza gaitzke egun. José Colá Goiti atzerria ezagutzeko aukera izan zuen, bada, azken karlistadan, arazo politikoak tartetan, Ameriketara joan beharra izan zuen. 1880.ean itzuli zenean, ikusitakoen zein ikusitakoen berri eman zuen *La emigración vasco-navarra* arrakasta itzeleko idazkian - 1882. eta 1883. urteetan hiru argitaraldi izan zituen, aisaki agortu zirenak-. *Euskal erria* aldizkariko ohiko kolaboratzailea izanik, erraz izan zuen Marzelino Soroa Lasa donostiarra ezagutzeko, eta horri eskatu zion bere lana euskaratzeko. Azken honek ordea,


nekez ezagutu zuen erbestea, alta arrazoi politikoengatik ere sorterritik kanpo ibilia bazen ere, ez zen sekula Euskal Herriatik atera -Lapurdik Getarin eta Ziburun bizi izan zen-. Soroaren itzulpena, hau da, *Euskal-naparren joera edo emigrazioa*, Coláren liburuaren laugarren argitalpena genuen, 1885.ean ageri zena. Bostgarren edizioa, berriz, Adrien Planték frantsesera eginiko iraulketa izan zen, 1886.ean ageri zena -Adrien Planté hau Orthezeko alkatea eta Behe Piriniotako deputatua izan zen-. Coláren liburuaren azken edizioa, seigarrena alegia, klasiko saila horixkan agertu zen 1988.ean Inazio Mujika Iraolak paraturik.

Coláren aburuz, Iruñeko gotzaienarengandik haratago joaki, orduko egoera benetan arduragarria gertatzen hasia zen, ez hainbeste jende eskasiagatik, hango intxaurren soinu faltsu eta hutsagatik baizik. Hemengo jende xehea jakinaren gainean jartzearen egin zuen liburuak: «Erriari: ikusirik zer larritasun zorigaitzokoa arkitzen dan Españi guzian, eta batezere gure Euskal lur maitean Ameriketara juteko oitura txar orrekifí, utzirik emengo egiatzko poztasunak ango amets eruen truk, asi giñan izkribatzen eguneroko paperetan Ameriketaratu bear tristearen kontra».

Edozein modutan ere, saioak saio, eta oharrak ohar, euskaldunek etxetik alde egiten jarraitu zuten, eta horretarako, baliagarriak zitzaizkien esku libururik ere ez ziren falta, beharrik. Toursier izeneko batek ondu *Petit guide militaire de l'emigrant* Amikuzer aldeko Aiziritzeko irakaslea zen Primorenak irauli zuen euskarara, *Soldado zerbitzua egin baino lehen edo egin ondoan Frantziatik joanak diren gizon gazten gidaria heskuareaz*, Pabeko P. Haristoirenean 1912.ean agertu zena.

## etorri ahalean

Patziku Perurena



### Nafarkeriak

**G**AUZA EZAGUNA DA MUNDUAN, kasta desberdinetako jendea, beren larrujera edo koloreja nabarmenduz bereizteko usuario zabaldua: moroak, beltzak, horiak (ekialdekoak), larrugorriak (indioak), azur beltzak (bizkaitarrek kastillanoei); Venezuelen *pardo*-ak mestizoak dira. Beltzek beren artean yanki zuriei *pinks* deitzen die, zurigorri edo arrosa kolorekoak. Liburu eder baterako emanen lizuke gaiak, xehero hasi ezker.

Aumeric Picaud jaunagandik ere, irainak bakarrik hartu ditugu gogoan, baina, badira gauza gehiago aintzat hartzekoak. Gai honetaz diona, esate bateko: «Nafarrak eta Baskoak antzeko dira jantzitan, janaritan eta hizkeran; baina, baskoek arpegije zuristagoa dute nafarren aldean». Horrek ere zerbait adierazten du nere nafar = nabar tesi inoxente honen alde.

Kontuak hola, Justo Garateren ustez, euskaldun menditarrek, Erribera aldekoie beren kolore beltzaranagatik deituko zien Nabarr(o): «Claro que navarros primitivamente se aplicaría a los de la Ribera, luego incluiría también a los de la Cuenca de Pamplona y al fin a todos los que pertenecían al consolidado Reino de Navarra». Egia da ere, nafarrongandik bereiziz, Basko deitu izan zaiela urte luzetan Bidasoaz haruzkoei.

Gaitzak bereizteko orduan ere, maiz erreparatu dio jendeak larrujeari: gorriena, sukar horia, sukar beltza, berdoztua, horimina... Baina, nafarrerria hitza erabili izan dugu, viruela adierazteko, eta viruela latineko variola hitzetik dator, eta larrujeari nabarra esan nahi du. Gaitz honen beste izena baztanga dugu ordea, eta nafarrerria bezalaxe, badirudi arrazakeria medio sortua dela. Nafarrerria = nafar jendearen gaitza: baztanga = baztangoena.

Are gehiago, albino hitzak ere badu zer ikusirik kolorearekin, latineko albus (txuri) hitzetik

baitator, eta halakotzat joak izan dira esate bateko agot larruxuriak, larrujera gorritzen duen pigmentu baten eskasiagatik. Eta ikusia dut jende frango, pigmentu eskasi horrengatik, gorputzeko zenbat alderditan pinto xurinabarrak dituen. J.M.Iribarrenek ere hala dio: «nabarrisco, significa manchado o pardo». Eta nabarrisco honekin morisco hitzak duen kidetasuna datorkit burura.

Honek noski, agotak dakazki gogora, endemas Baztan aldekoztat joak, eta maiz jitoekin nahastuak. Begira, Nabaro hitza Azkuereñean: «Buhamerik geiena Baztan aldean dela Euskalerrri orotan nabaro da». Eta halakoaz mintzo denean, euskal hiztunak herri literaturan oharkabe sartuko dizun baztandoina horren lekuko. Inoiz adituak gara gainera, jendaje hori aintzina legenduntzat joa izan zela, eta nago kontu hori ere, nafarrerria eta baztanga bezalaxe, larrujeari atxekia ez ote zen sorreran. Arbuio moduan, baztanga-pikatu eta gisakoeak, antz haundia baitute legendunekin.

Nik uste, nabarr(eri)a, legenduna, baztanga... elkar lotzen dituen hari semantikoa suma litekeela oraindik, gai ilun honetan euskal usuarioak utzi dituen aztarnak ongi segituz gero. Leitzatik atera gabe, mende honen aurrenetan Joakina 'Nabarra' izeneko baztandar eskazale hura datorkit burura, edo hiru mendez lehenagoko 'Nabarrene' izeneko etxea, dirudienez, arrazakeriak medio, herribarren zaharretik kanpora egina.

Dudarik ez, semantika bereko senide ugari izanen dutela «Nabar» horiek gure usarioan. Beste gabe, hitzaren zentzu zaharri eustea aski: Nabar, Nabari, Nabaro, Nabarko, Nabarben, Nabarmen, Nabarmenkeri... Edo euskal sena galduxe duenarentzako: «lascibo, incivil, raro, torpe, escandaloso, sobresaliente, indiscreto...». Alderdi onekorik apenas ordea.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### EHNEn sosak


**A**HOLKULARIEK PROPOSATUA. IRUDI KONTUA ZEN. GOBERNUKO LANGILE bat liberatu koordinatuek egin lanari aurre egiteko. Langileak erraza dauka, lan gehiena faxez jasotzen baitu, UGTren egotzaren paperburuaz jaso ere. Anzizar buru duen Uraren Aldeko Plataformak bost milioi jaso berri ditu Gobernuarengandik, gizalana du helburu. EHNEn sosak ote?



**Jesus Gonzalez**  Beteluko alkatea

# «Naturak emandako baliabideak sustatzea aukeratu dugu»

**Leitzarango autobia egin zenetik Betelun mugimendu gutxiago sumatzen bada ere, aurki egiten hasiko diren zahar etxeak eta zentro termalak herriari onura handiak ekarriko dizkiotela uste du Jesus Gonzalezek, Beteluko alkatea. Dena den, bi proiektuok zeresana ere ekarri dute Araizko bailarara.**



● LUIS AZANZA

**A**URREKO GAUEAN BOTATAKO izotzak utzitako ihintza behe lainoarekin eta Araxesen ur epelak botatako lurrinarekin nahasten zen Betelun goizean goiz. Zerua urdin-urdin bazegoen ere, hotz egiten zuen Gonzalezekin izandako hitzorduan.

■ **Zahar etxearen proiektua lortu duzue, zentro termala egiteko asmotan zabilzate, eta 1833ko Ur Beroa garbitagia zaharberri eta ireki berri duzue. Galtza bete asmorekin pozik egonen zarete.**

Legegintzaldiaren hasieran ezarritako proiektuak gauzatu izaten doazen heinean, kontent gaude. Zahar etxeak eta zentro termalak 42 bat lanpostu sortuko dituzte. Aurkeztutako hiru proiektuen arteko lehia luzea izan da eta, zorionez, Nafarroako Gobernuak gurea onartu du. Orain, bi proiektuok aurrera aterako dituen sustatzaile ekonomikoaren bila gabilza. Bi proiektu diren arren, elkarri lotuak daude kudeaketari eta langileei dagokienez. Herrialdeko finantza erakunde batekin harremanetan gaude eta baldintzak negoziatzen ari gara. Azkar gauzatzea espero dugu.

■ **Zein beste proiektu ditu Beteluk?**

Proiektu nagusiak zahar etxea eta zentro termala dira. Bestalde, burdinolara iristeko bidea ere hobetu behar dugu aurten, eta hirurteko planean aurreikusia dago

hilerria eta Granja eta Udaletxeko kaleetako azpiegitura hobetzea. Era berean, datorren urterako Intzatic ura ekartzeko azpiegitura moldatu nahi genuke. Leitzarango autobia eragina nabaria izan da. Trafikoa urritzeaz gain, industria erakartzeko aukerak galdu ditugu autobia urruti gelditu

delako. Dena den, zentro termalaren aitzakiarekin, ezarrita dagoen industria galdu gabe, Araizko bailaran baxerri turismoa bultzatu beharko genuke. Horregatik aukeratu dugu naturak emandako baliabideak sustatzea.

■ **Zahar etxea egiteko lur sail batzuk desjabetu behar dira. Lanpostuak ekarriko dituen arren, bada erabakiarekin ados ez dagoenik?**

Proiektuak interes orokorra duela ikusirik, baliagarritasun publikoko izendatu dugu. Hartu dituen lur sailen jabe batzuk ados egonen dira eta beste batzuk ez. Zahar etxeak hartzen dituen lurren zerrenda egin dugu, eta nahi duenak arazoibideak egiteko aukera izanen du. Oraindik ez da desjabetzarik erabaki, jabeekin akordio ekonomikoaren zenbatekoan adostasunik lortzen ez bada hori egiten da.

■ **Dena den, Udalean zahar etxeak eman du zeresanik. Zure taldeko hiru zinegotzik**

**kargua utzi egin dute argudiatuz haien iritzia ez dela aintzat hartzen eta egiten diren kudeaketak eta lanak ez direla gardenak.**

Gardentasunik ez dagoela gezurra da. Zinegotzi izan direnean uneoro informazioa izan dute. Beraz, informazioa beti izan dute. Bestalde, dimisioarena zerbait pertsonala da. Alkatearengan konfiantza galdu dutela arrazoitu dute eta, hein batean, konfiantza zerbait pertsonala da. Nik ez dut uste aurkeztu duten idatzia nik izandako jokabidearekin arrazoitu daitekeenik.

■ **Hiru zinegotzik kargua utzi ondoren, nola gelditu da Udala?**

Udalak udalbatzarrerara deituko du zerrendan ordezkari direnek kargua onartzen duten ala ez erabakitzeke.

■ **Ondoko herrietako udalek hartutako erabakiak ere kritikatu izan dituzue hainbatean. Zure ustez, Plazaolako Partzuergoan langile kontratazio eta adjudikazio irregularrak egin dira, inguru honetako kirol koordinatzailearen beharrak aipatu dituzue, eta abar. Nolakoak dira ondoko herriekin dituzun harremanak?**

Ongi moldatzen naiz guztiekin.

## soslaia

Jesus Gonzalez Lugon (Galizia) jaioa da. Venezuelan eta Katalunian lanean ibili eta gero, badira hemezortzi urte Betelun bizi dela. 350 biztanle dituen herria gobernatzeak lana eta buruhauste asko ematen dizkion arren, gustura dagoela dio Beteluko alkatetzan.

Sei urte Bartzelonan eta Caracasen beste bost bizi izan bada ere, nekazari giroa du maite eta Betelun jarraitzeko asmoa du. Ezkondua, bi semeeren aita da, eta baso-lana du ogibide.

Herrian euskal hiztunak nagusi izanik, euskaraz ikastea omen du erronketako bat. Hizkuntzetarako jaioa da. Gailegoa Galizian sortu zelako egiten du eta katalana Bartzelonan bizi izan delako. Lanak eta udaletxeko aferekin beta gutxi uzten badio ere, zirrikitu bat topatzen duenean euskaraz ikasten hastekoa omen da.

Arazoak irizpide ezberdinak ditugulako izaten dira. Kirol koordinatzaileak eskualde osorako izan behar du. Era berean, Plazaolako Partzuergoak sortu zen lurraldearen onurako behar luke eta ez bakarrik lurralde horren zati baten onurako.

■ **Hortaz, zure iritziz, Partzuergoaren lana eskualdeko lurralde batzuetan bakarrik nabaritu da?**

Nire ustez, Partzuergoak, alde bat bestea baino gehiago laguntzeaz gain, indarrean dauden

legeei lotu gabeko erabakiak hartu ditu. Lanak adjudikatzeke garaian gardentasuna eskatu dut. Kontuan hartu behar da Partzuergoak lortzen dituen baliabideen %80 udal erakundeetatik lortzen dituela. Adibidez, Leitza herri kirolaren erakusketa emateko ez zen deialdi publikorik egin eta zuzenean esleitu zen. Partzuergoko kudeatzailearen deialdia ere ez zen egin udal administrazioetako legedia aintzat hartuz.

→ Irene Arrizurieta



## BEKARIO!

## ZALDI ERDA



### Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

## Sanzen egonarriaz

**I**NDARKERIAK DEN DENA DESITXURATZEN duen Herri honetan zaila da, zinez, gai hori bazter uztea. Nolanahi ere, ihauteri hotsak barreiatu hurren dauden honetan, erran daiteke aurtengo politikagintza ez dela lazkoa bezalakoa izanen. Izan ere, gestora sozialistarenak egin zuen, eta hori, oraingoz hein txikian bada ere, eztabaida politikoa aberasgarri gertatzen ari da. Batzuek diote funtsean ez dela aldaketarik izanen, hau da, Lizar-bek ez dituela UPNrekiko loturak goitik behera hautsiko, eta, Nafarroaren egonkortasunari men egitearen aitzakian eskuindarrekin batera, eskutik helduta, eginen duela ibilbidea. Lehendabiziko proba Diputazio-burua hautatzeko legea izanen da.

Bien bitartean, Arbeloaren lekutzeak kosk egin dio Sanzen egonariari eta ohartu da 50 jarlekuen artean hamazazpi bertzerik ez edukitzeak ez diola bermerik ematen alkate makilari lasai eusteko. Beraz, Corellako politikagizon txaparroak azpimarra eginen du «bere lorpenetan»: batetik, ekonomian, nahiz eta gauzak ez izan uste eta predikatu bezain sendo, eta, bertetik, nafar nortasunean, haren parerik ez delakoan nortasun hori babes-terakoan. Oraingoz behintzat, ez dirudi CDNren ibilerak kezkatzen duenik, inork ez baitaki benetan osasunez nola dabilen AIIren alderdia. Azkenik, ikuskizun dago hauteskundeen aurreko azken Nafarroa Oinez festan agertuko ote den, edo bertela erranik, keinuren bat eginen ote dien euskaltzaleei, euskal iratiendako lizentziaren bat edo, auskalo. Dena dela, ez du zertan eginik. Erranak erran, halako keinu bat egiteak UPNko botuemale aunitz atsekabetuko lituzke, ez baita atzendu behar jende horrek atzerapausutzat jotzen duela euskararen aldeko urratsa, hau da, Nafarroako nortasunari kale egiten diola. Zoritxarrez, azken horiek dira gure Herrialdeko agintariguneetan dabilzanak.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Berriozar:** Pablo Sarasate Orkestrak haurrentzako entzunaldiak eskainiko ditu gaur, astelehenean eta arteartean.
- **Elizondo:** Kasino tabernan Tc10 taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30etan.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** Amadis de Gaula taldeak *Tarta de manzana* taularatuko du gaur, 19:30etan, Jus la Rocha aretoan.
- **Iruñea:** La Cubana taldeak *Cegada de amor* antzertuko du Gayarre antzokian gaurtik 28ra arte 20:00etan. Bihar bi emanaldi eginen ditu: 20:00etan eta 23:00etan.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako egitarauaren barruan *Alargunen gailurra* eskainiko da gaur Golem zinematokian 20:00etan. Aurretik *Casting* labormetraia pantailaratuko da.
- **Leliza:** Zinematokian *40 ordu* filma estreinatuko da gaur, 20:00etan. Pelikula herriko talde batek ekoiztu, egin eta muntatu du, eta Mikel Elsegik zuzendu du.

### ERASKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Jose Otxagabiarren margoak ikusteko aukera dago igandera arte. Astelehenean ostiralera 19:00etatik 21:00ak arte dago, eta jaiegunean 12:00etatik 14:00ak arte.
- **Iruñea:** Lacava kafetegian Elena Goñiren pinturak ikusteko aukera dago. Erasketa otsailaren 1a arte izango da zabalik.
- **Iruñea:** Rufo Criadorek lanak ikusteko aukera dago Carlos III aretoan hilaren bukaera bitartean.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Joseba Sarrionandiaz ariko da Jose Maria Iturralde Zaldiko Maldikon asteazkenean, 20:00etan.
- **Leliza:** Bertso saioa eginen da etzi, 19:00etan. Bertso kantari ariko dira bertso-

lariok: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Unai Iturriaga eta Jexus Mari Irazu.

► **Iruñea:** Javier Diaz Huder idazlearen *Nadie vio muerte tan bella* elaberria aurkeztuko du Emilio Etxebarren Literatura katedradunak heldu den as-

teartean, 20:00etan, Iruñeko Kutxaren egoitzan (Armada Etorbidea 2)

► **Altsasu:** Euskaraokea telebista saioa grabatuko da asteazkenean. Saioan Sakanako ikastetxe guztietako haurrek parte hartuko dute.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

**MARTINI**

Artominten Metautenen egon nintzen, eta zu ez zinen, baby.

MARTINI  
PARALELAKO  
KOKORNO